

Prestakuntza saioa

Literatura esperientziak gazteekin

San Telmo museoan,
azaroaren 22an.
10:00etatik 14:00etara.



Ilustrazioa: Concetta Probanza

. Miren Billelabeitia, institutuko esperientziez.

. Nerea Loiola, Peru Magdalena eta Eider Perez gazte irakurle taldeez.
Moderatzailea: Olatz Mitxelena



“Literatura esperientziak gazteekin”

Sormena, heziketa literarioa, gustu estetikoa, pentsamendu kritikoa

Hamabost urte baino gehiago dira Galtzagorri elkarteak Haur eta Gazte Literaturako Irakurketa Mintegia martxan jarri zuenetik. Haren barruan, urtero, tailer, hitzaldi edo ikastaro bat eskaintzen die mintegiko parte-hartzaileei eta interesa duen beste edonori.

Aurtengo ikasturterako formazio saio berri bat antolatu dugu. **Gazte-literatura** izango da horren ardatza. Gaia, egun, gazte literatura jorratzen duten bitartekarien esperientzietatik landuko dugu.

Horretarako, alde batetik, **Miren Billelabeitia** gazte-bitartekaritzako aditua gonbidatu dugu gazteak irakurketaren praktikara bultzatzeko bere esperientzia azaldu dezan.

Bestetik, gazte literaturako irakurketa eta idazketa talde desberdinen gidarien esperientziak eta bizipenak partekatuko ditugu **mahai-inguru** batean.

LANDUKO DIREN GAIAK:

10:00etatik 12:00etara: Miren Billelabeitia gazte-literaturako bitartekaria gonbidatu dugu “Literatura esperientziak gazteekin institutuan” saioa eskaintzeko. Ikastaroaren muina honakoa izango da:

Oinarri orokorrak:

- Eskolan mitoak iraultzen: gazteek ez dutela irakurtzen ez da egia.
- Esperimentazioa abiapuntu: literatura landu irakurketaren bidez.
- Tertulia literario baten antolaketa: aholkuak, pistak, eta abar. tertulia arrakastatsu bat egiteko.

Adibide zehatzak:

- Liburu bakoitzarekin egindako lanketa.
- Ondorioak eta lorpenak.

12:30etatik 14:00etara: “Literatura esperientziak gazteekin irakurketa taldeetan” mahai-ingurua izango dugu. Hainbat liburutegitan garatzen ari diren gazteen irakurketa eta idazketa taldeen dinamikak ezagutuko ditugu, haiek gidatzen dituztenen eskutik. Mahaiaren bueltan izango dira **Peru Magdalena, Nerea Loiola** eta **Eider Perez. Olatz Mitxelena** izango da moderatzailea.

METODOLOGIA:

Ikastaroaren lehenengo zatian, Miren Billelabeitiak gazte-literaturako bitartekaritza egiteko oinarri teorikoak azalduko dizkigu, bai eta tertulia literario bat egiteko urrats batzuk ere. Ondoren, praktikaz mintzatuko zaigu: Gazte-literaturako izenburu jakinei lotuta, adibide zehatzak eskainiko dizkigu eta bakoitzarekin zer-nola landu eta zer lortu duen azalduko digu.

Bigarren zatian, mahaiaren bueltan, liburutegietan gazteen taldeak gidatzen dituzten hiru pertsonen esperientziak bilduko ditugu: Peru Magdalena, Nerea Loiola eta Eider Perez. Gazteekin izan dituzten bizipenak eta bakoitzaren taldeen lan-moldeak ezagutuko ditugu eta horietan oinarrituta, entzuleei gazteekin ongi funtzionatu dezaketen praktikak erakusten ahaleginduko dira, Olatz Mitxelenaren gidaritzapean.

HIZLARIAK:

Miren Billelabeitia Mungiako Institutuan literatura irakasle lanetan aritu da urteetan, Euskadi saria irabazi zuen *Norberak maite duena* (Pamiela, 2022) gazteekin irakurketaren bitartekaritza ardatz duen saiakeragatik.

Nerea Loiola idazle eta irakasle debarra da. Zarauzko LH5 eta LH6. mailetako haur irakurleek osatutako taldea gidatzen du, baita DBHko gazte irakurle taldea ere. Helduen taldeak ere gidatzen ditu Zarauzko liburutegian eta Orioko emakumeen etxean.

Peru Magdalena idazle durangarra da. Gaur egun bederatzi talde gidatzen ditu, LH3tik LH6ra bitarteko ume eta gaztetxoekin lurretan, Eibarren, Elgoibarren eta Oñatin.

Eider Perez idazle, antzezle, bertsozale eta aurkezle trintxerpearra da. Errenteriako Arte Eskolan ematen du HITZA izeneko irakasgaia. Honen barruan astero saioak egiten ditu

haurrekin, gazteekin eta helduekin. Saio horietan, hitzara hurbiltzen den edozer adierazpenekin lan egiten dute.

Olatz Mitxelena idazle eta irakasle oiartzuarra. Bigarren Hezkuntzan lan egin du, Euskara nahiz Filosofiaren Historia irakasgaien irakasle; gaur egun, Donostiako IRALEn irakasle lanak egiten ditu. 2025etik, Oiartzunen gazteen zenbait irakurketa eta idazketa talde gidatzen ditu.

NON: San Telmo Museoko ekitaldi aretoan: Zuloaga plaza, 1, 20003, Donostia.

NOIZ: Azaroaren 22an, larunbata, 10:00etatik 14:00etara.

IZEN-EMATEA: [Izen-emate orria](#) beteta eta diru-sarrera egin izanaren ziurtagiria bidali behar da **azaroaren 14a** baino lehen administrazioa@ibbygaltzagorri.eus helbidera.

Kontu korronte zenbakia: ES87 3035 0242 68 2420002471

Gehienez 50 ikaslek parte har dezakete. Onarpena izen-emate ordenaren arabera egingo da.

- Galtzagorriko mintegiko kideentzat doan.
- Galtzagorriko bazkideak: 35 euro.
- Ez-bazkideak: 50 euro.